



## **AKTA**

# **Udalbatzarraren ezohiko bilkura**

**EGUNA:** 2015eko martxoaren 31, asteartea

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 20:00    **BUKATZEKO ORDUA:** 20:45

**BERTARATUAK:**

### **Alkatea**

Beñat Solaberrieta Albizu

### **Zinegotziak**

Jon Redondo Lertxundi, Angel del Hoyo Bravo, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

### **Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

Elena Etxeberria Sedano zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri, kanpoan dagoelako, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.

## **Gai-zerrenda**

- 1.- 130/2015 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretu horren bidez 1/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea onartzen da, kreditua txertatzeko modalitatean.



- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 2/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.
- 3.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Iturbide kalean udal ludoteka bat egokitzeko lanen exekuzioaren kontratazioa, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Baldintza Administratibo Partikularren Orria, Orioko Antilla hondartzaren zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua eta Orioko udal kanpineko igerilekuaren zaintza eta botikin zerbitzua kontratatzeko, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa bidez.
- 5.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko udal hilerriko arautegiari.
- 6.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Orioko gazteen aisialdiko lokalak arautzen dituen udal ordenantza.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orioko Bildu, EAJ eta Orain talde politikoek sustatutako adierazpen instituzional bat, bizikidetzaren eta giza eskubideen alorrekoa.
- 8.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

### **1.- 130/2015 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETU HORREN BIDEZ 1/2015 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEN DA, KREDITUA TXERTATZEKO MODALITATEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 1/2015 espedientea kreditua txertatzeko modalitatean egina dago eta 382.651 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

### **2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 2/2015 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2/2015 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 844.316 euroko zenbatekoa du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2015eko martxoaren 30ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2015eko aurrekontuari dagokion 2/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean eginga dago eta 844.316 euroko zenbatekoa du.

**2.-** Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

**a) Erakutsita dagoen lekua:** Idazkaritza-kontu-hartzailletza

**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

**d) Inpugnatzeko arrazoiak:** Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

**e) Aurkezteko bulegoa:** Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

**f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela koherente jokatzeko legealdi osoan egin dutenarekin: alegia, kontrako botoa ematea kreditu gehigarrien modalitatean planteatu diren kreditua aldatzeko espediente guztiei, aurreko urteetako diruzaintzako gerakinaren kontura egiten direlako.



Gainera, adierazten du normalena izaten dela kreditua aldatzeko espedienteak udal aurrekontua onartu eta bost edo sei hilabetetara planteatzea, eta bere talde politikoari harrigarria egiten zaiola 2/2015 kreditua aldatzeko espediente hau orain aurkeztea, 2015eko udal aurrekontua onartu eta hamabost edo hogeita hamar egunetara, eta horrek garbi erakusten duela udal gobernuak unean-unean inprobisatuz jokatzeko duela.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du inolako inprobisaziorik ez dagoela 2/2015 kreditua aldatzeko espedientearen tramitazioan, eta indarrean dauden lege eta arauen arabera egin dela: espedienteak udal kontu-hartzailearen txostena dauka eta Ogasun batzorde informatzailearen diktamena ere badauka, eta beharra sortu denean ekarri da udalbatzarrera, organo honi dagokiolako espedientea onartzea.

Era berean, udalbatzarrak udal kontu-hartzaileak egindako txosten baten berri jasotzen du. Txostena aurrekontu-egonkortasuneko, iraunkortasun finantzarioko eta gastuaren erregelako helburuak betetzeari buruzkoa da, eta bertan honako hau ondorioztatzen da: 2015eko aurrekontuaren espedienteak, 2014ko behin-behineko likidazioaren datuen arabera, betetzen duela iraunkortasun finantzarioko helburua, baina ez dituela betetzen 2015eko aurrekontu-egonkortasuneko eta gastuaren erregelako helburuak 2015erako.

### **3.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ITURBIDE KALEAN UDAL LUDOTEKA BAT EGOKITZEKO LANEN EXEKUZIOAREN KONTRATAZIOA, PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Prozedura negoziatura lau lehiatzaile hauek aurkeztu dira:

- 1.- LUSARBE, SL
- 2.- MUGIL ERAIKUNTZAK, SL
- 3.- ALBAÑILERÍA AIZPERRO, SL
- 4.- IGEZ, SL

Kontratazio Mahaiak, udal arkitektoak 2015eko martxoaren 23an emandako txosten teknikoa aintzat hartuz, honako hau proposatzen du: Orioko Iturbide kalean udal ludoteka bat egokitze lanak proiektu teknikoaren arabera exekutatzeke kontratua **MURGIL ERAKUNTZAK SL** sozietate merkantilari adjudikatzea, bere proposamena izan delako puntuaziorik altuena lortu duena Baldintza Administratibo Partikularren orriko 2. eranskinean ezarritako irizpideen arabera.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- MURGIL ERAIKUNTZAK SL** sozietate merkantilari **ADJUDIKATZEA** Orioko Iturbide kalean udal ludoteka bat egokitzeko lanak proiektu teknikoaren arabera exekutatzeko kontratua. Adjudikazioaren prezioa 158.526,82 eurokoa da, eta horri %21eko BEZaren 33.290,63 euro gehitu behar zaizkio (gastu orokorrak eta mozkin industrialak barne).

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita; horrez gain, adjudikazioaren zenbatekoaren %5eko behin betiko bermea eman beharko du, BEZa kenduta (7.926,34 euro).

**2.- JAKINARAZTEA** erabaki hau enpresa lizitatzaileri guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkien lege errekurtsoak azalduz.

**4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ORRIA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAREN ZAINZTA, SALBAMENDU ETA LAGUNTZA ZERBITZUA ETA ORIOKO UDAL KANPINEKO IGERILEKUAREN ZAINZTA ETA BOTIKIN ZERBITZUA KONTRATATZEKO, PROZEDURA IREKIZ, OHIKO TRAMITAZIOZ ETA LEHIAKETA BIDEZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2015eko martxoaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** Baldintza Administratibo Partikularren Orria, Orioko Antilla hondartza zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua eta Orioko udal kanpineko igerilekuaren zaintza eta botikin zerbitzua prozedura irekiz, presazko tramitazioz eta lehiaketa bidez kontratatzeko.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 78. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza orrien laburpen hau argitaratzen da:

**1.- Erakunde adjudikatzaileria.**

**a) Erakundea:** Orioko Udala.



**b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa:** Idazkaritza-kontu-hartzailletza

## **2.- Kontratuaren xedea.**

**Xedearen deskribapena:** Hau da lehiaketa honen xedea: Orioko Antilla hondartzako zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua eta Orioko udal kanpineko igerilekuaren zaintza eta botikin zerbitzua ematea.

**Exekuzio epea:** 2015eko eta 2016ko udako denboraldiak. Urtez urte luza daiteke; baina, guztira, kontratuak ezin izango du iraun 4 urte baino gehiago.

## **3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.**

**a) Tramitazioa:** Presazkoa.

**b) Prozedura:** Irekia.

**c) Adjudikatzeko era:** Lehiaketa.

## **4.- Lizitazioaren zenbatekoa.**

Urteko 120.220 euro (BEZa barne). Lizitatzailleek aukera izango dute kopuru hori hobetzeko.

## **5.- Bermeak.**

**a) Behin-behinekoa:** Ez da eskatzen.

**b) Behin betikoa:** Kontratuaren adjudikazio zenbatekoaren % 5 (BEZa kenduta).

## **6.- Iragarki gastuak.**

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

## **7.- Dokumentazioa lortzeko.**

Espedientearen dokumentazioa Udaleko idazkaritzan dago ikusgai.

## **8.- Proposamenak aurkeztea.**

**a) Epea:** Zortzi egun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

**b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa:** Baldintza-orrian zehaztutakoa.

**c) Tokia:** Udaletxeko idazkaritza-kontu-hartzailletza. Herriko Plaza, 1. 20810 ORIO.



d) **Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

## 9.- Proposamenak irekitzea.

a) **Tokia:** Oriko Udala.

b) **Data:** Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo lanegunean; egun hori larunbatarekin egokitzen bada, data hurrengo lanegunera pasako da.

c) **Ordua:** 12:00etan.

## 5.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL HILERRIKO ARAUTEGIARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2015eko martxoaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Oriko udal hilerriko arautegiari.

2.- **JENDAURREAN JARTZEA** udal arautegi hori, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal arautegi hori interesatuen eskura dago udal idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada ohar edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da arautegia, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

## 6.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO GAZTEEN AISIALDIKO LOKALAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarrak, 2013ko urriaren 31ko ohiko bilkuran, erabaki zuen, batetik, lehen onarpena ematea Oriko gazteen aisialdiko lokalak arautzen dituen udal ordenantzari eta, bestetik, espedientea jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, interesatuek aukera izan zezaten ohar eta iradokizunak aurkezteko.





Erabakia jendaurrean jartzearen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2013ko azaroaren 7an (212. zenbakian) eta, beraz, jendaurreko epea 2013-11-08an hasi eta 2013-12-16an amaitu zen.

Jendaurreko epean idatzi bakarra aurkeztu zen, udal ordenantza horren testuan hainbat hobekuntza egitea proposatzen zuena; idatzia Jexus Mari Arriaran Elkorobarrutiak aurkeztu zuen.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kirola eta Gazteria batzorde informatzaileak 2015eko martxoaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMABI BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

**1.- AINTZAT HARTZEA OSORIK** Jexus Mari Arriaran Elkorobarrutiak Orioko gazteen aisialdiko lokalak arautzen dituen udal ordenantzaren testuari egindako oharra, Kirola eta Gazteria batzorde informatzaileak 2015eko martxoaren 26an emandako diktamenaren arabera.

**2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA** Orioko gazteen aisialdiko lokalak arautzen dituen udal ordenantza, Jexus Mari Arriaran Elkorobarrutiak egindako oharra gehituta

**3.- AGINTZEA** udal ordenantza hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, dagozkion lege-errekurtsoak adieraziz, indarrean sar dadin.

**7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO BILDU, EAJ ETA ORAIN TALDE POLITIKOEN SUSTATUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONAL BAT, BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ALORREKOA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpen instituzionalak honela dio, hitzez hitz:

*Udal honetan ordezkariak dugun partidu guztietako ordezkariak, 2012 "Orioko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Diagnostikoa eta Udal Plana" burutzea adostu genuen Herriko eragile ezberdinek Orioko Bizikidetzaren inguruan genituen pertzepzioak jasotzeko diagnostiko parte hartzailea bultzatuz. Horren baitan, 2014 urte osoan zehar espreski indarkeria politikoa eta giza eskubideen urraketen inguruan hausnartzeko gure bizipen eta sententzioak partekatze, azterketa kritikoa egin eta bizi izan diren sufrimendu ezberdinak agerian jartzeko prozesu bat burutu dugu.*

*Gure herrian bidezkoak ez diren gertakizun ezberdinak izan ditugu, besteak beste: erailketak, tortura kasuak, mehatxuak, nahiz jabego ezberdinen kontrako atentatuak. Jabetzen gara, bestalde, herritarron eguneroko bizitzan ere eragin*





*zuzena izan dutela bizi izandako indarkeriak: isiltasunak, familien eta lagun arteko urruntzeak, polarizazioak, hitz egiteko askatasun falta, aurre-iritziak, eta beste hainbat gertakari. Bizi izandako egoera hauek ez dira bidezkoak, eta lanean jarraitu behar dugu errepika ez daitezen.*

*Horregatik, Udal Batza honek hartzen duen erabakia hauxe da:*

- 1. Orain artean aipatutako indarkeria politikoak Giza Eskubideak urratu eta bizikidetzan eragin ezezkorra izan dute; hortaz, horiek onartezinak eta salagarriak izateaz gain, errepikatu ez daitezen lanean jarraituko dugu ezberdinen arteko elkarrizketa eta gerturatze espazioak ahalbidetuz.*
- 2. Udal ordezkariok bizikidetza eta Giza Eskubideen alde, aurrerantzean ere, lanean jarraitzeko konpromisoa eta borondate politikoa dugu, horretarako egokiak ikusten diren ekimen ezberdinak bultzatuz.*
- 3. Etorkizunera begira, adiskidetzako herria izan nahi horretan, pausuak ematen jarraitzeko asmo irmoa azaltzen dugu, udal ordezkariez gain, herriko beste eragileak ere, bide honetara gonbidatuz.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** Orioko Bildu, EAJ eta Orain talde politikoek sustatutako adierazpen instituzionala, bizikidetzaren eta giza eskubideen alorrekoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

## 8.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Udaleko idazkari-kontu-hartzaileak hartzen du hitza, eta honako hau jakinarazten die bertaratuei:

- Udal aurrekontuaren 2010eko Kontu Nagusian agertzen denez, diruzaintzako gerakin likidoa 9.758.309,94 eurokoa zen.
- Udal aurrekontuaren 2011ko Kontu Nagusian agertzen denez, diruzaintzako gerakin likidoa 9.183.641,87 eurokoa zen.
- Udal aurrekontuaren 2012ko Kontu Nagusian agertzen denez, diruzaintzako gerakin likidoa 7.025.415,84 eurokoa zen.



- Udal aurrekontuaren 2013ko Kontu Nagusian agertzen denez, diruzaintzako gerakin likidoa 5.592.480,12 eurokoa zen.
- Udal aurrekontuaren 2014ko behin-behineko likidazioaren datuen arabera, diruzaintzako gerakin likidoa, 2014-12-31ko dataz, 5.834.000 eurokoa da; zenbateko horren barruan daude 544.316 euro, Urtetako hondakindegia itxi eta zigilatzearen finantzazio luzatuari dagozkionak, eta ez dago sartuta gaurko udalbatzarrean lehen onarpena eman zaion 300.000 euroko zenbatekoa, 2/2015 kreditua aldatzeko espedienteari dagokiona, Oriko Herri Ikastolak DBHko ikastetxe berrirako egindako inbertsioak finantzatzeko erabiliko dena.

Beraz, udal diruzaintzako gerakina, 2010-12-31ko dataz, 9.758.310 eurokoa zen eta gerakin hori, berriz, 2015-03-31ko dataz, 5.534.000 eurokoa da; aldea, hortaz, 4.224.310 eurokoa da.

- Azaldutakoaren arabera, Oriko Udalak 2011-2015 legealdi honetan erabilitako diruzaintzako gerakina 3.694.382 eurokoa da, zeren eta Udalak 2011-05-13ko dataz 1/2011 kreditua aldatzeko espedientea onartu baitzuen, 144.884 euroko zenbatekoa duena, eta 2011-05-17ko dataz 2/2011 kreditua aldatzeko espedientea onartu baitzuen, 385.044 euroko zenbatekoa duena (bi espedienteen artean, beraz, 529.928 euroko zenbatekoa osatzen dute).

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, Karkara aldizkarian udal euskaltegiari buruz argitaratutako informazio bat argitzeko; adierazten du bere talde politikoa herrian euskaltegia izatea bultzatzearen alde dagoela erabat, baina Salatxo aretoa ez zaiola horretarako egokia iruditzen, irisgarritasun arazoak dituelako.

Jon Agirresarobe zinegotziak hartzen du hitza, Bilduren izenean, eta honako hau azaltzen du: hiru proposamen zeudela mahai gainean Orion euskara ikasteko zerbitzua kokatzeko: lehenbizikoa, Herriko Plazako lokal komertzial bat erostea; bigarrena, zerbitzua kultur etxean kokatzea; eta hirugarrena, Salatxo aretoan kokatzea.

Hiru proposamenak aztertuta, Bildu eta Orain taldeak ados jarri ziren euskara ikasteko zerbitzua Salatxo aretoan kokatzeko.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaraturako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**